

BETOÑO

— ARABA / ÁLAVA —

Gaur Gasteiz hiria osatzen duten herriguneetako bat da Betoño, dagoeneko bertako auzune bihurturik. Hiriko ipar-ekialdean dago. Historiaren arabera, 1258tik azaltzen da hiriari atxikitako herrixka zaharren artean, baina lehenago ere aipatzen da, *Betoniu* izenaz, eta *Harhazuako* barruttiaren baitan, Donemiliagako *Reja* deritzon katalogoan, bi hesiburdinako ekarprena egiten zuela zehaztuz. XVI. mendean, inguruko primiziarik handienetako bat ematen zion Elizari, eta mantenu osoko lau onuradun eta mantenu erdiko bat zituen. Horrez gain, ospitalea eta bi baseliza zituen, Santa Eufemiarena eta San Tomasena, beraren garrantziaren adierazgarri.

Formando parte hoy de la ciudad de Vitoria encontramos el núcleo poblacional de Betoño, convertido ya en un barrio más. Está situado al Noreste de la ciudad. Aparece en la historia como una de las aldeas viejas unidas a la ciudad desde 1258, aunque, ya antes, figuraba en la Reja de San Millán, aportando dos rejas, con el nombre de *Betoniu*, y estaba integrado en el Alfoz de Harhazua. En el siglo XVI su primicia era una de las más elevadas, contando con cuatro beneficiados de ración entera y otro de media ración. Contaba con hospital y dos ermitas, la de Santa Eufemia y la de Santo Tomás, datos que nos informan de su importancia.

San Esteban eliza / Iglesia de San Esteban

BETOÑUKO PARROKIA-ELIZA bere eskumeneko etxadiaren erdigunean dago, San Estebanen izenpean. Harlanduz egindakoa da, eta fabrikak bere historian zehar izan dituen zabaltze eta esku-hartzeen berri –azkena duela gutxi egin zen– ematen diguten silarri batzuk azaltzen dira han-hemenka, modu irregularrean banaturik. Gurutze latindarraren formako oinplanoa du, burualde zuzen eta presbiterioduna, eta gurutzadurako beso labur-laburretakoa. Nabeak hiru atal ditu, azkena, dorrearen gorputzaren barruan dagoelako, estuagoa delarik. Horretan, apaindura errenazentistako koru interesgarri bat dago, XVI. mendean egina.


Hegoaldeko horman dagoen lau arkuko eliz ataria zeharkatuta, XIII. mendeko portada erromanikoa aurkitzen dugu: arku zorrotz samarra du, apaingarri gutxiko arkiboltekin. Lehenengo eta hirugarren arkiboltak baketoidunak dira, eta oso nerbio markatua dute, eta bigarrenak barrualdean obalo ezkatadunak eta estuguneetan puntak dituzten zurtoin gurutzatuak erakusten ditu. Portada osoa erreumatzen duen arkiboltak erdiko nerbioa oso markatua duten hosto obalatu txikiak ditu arkugaineran, zeharka ezarririk. Motibo apaingarri hori inposta-lerroan ere ageri da.

Inposta-lerroaren azpian, atzapardun harroina eta landare-motiboz hornituriko kapitelak dituzten sei zutabe lisok eusten diete arkiboltei. Lehenengo bi kapitelak berdinak dira: erdiko nerbioaren alboetan folioloa eta puntetan palmondo-itxurako ifrentzu oso irekiak dituzten

EN EL CENTRO DE LA FELIGRESÍA que le corresponde se sitúa la iglesia parroquial de Betoño, bajo la advocación de San Esteban. Está realizada en piedra de mampostería, con algunos sillares repartidos de forma irregular, que nos hablan de las fases, ampliaciones e intervenciones que ha sufrido la fábrica a lo largo de su existencia, la última recientemente. Tiene planta de cruz latina, con cabecera recta y presbiterio y brazos del crucero muy cortos. La nave es de tres tramos, el último más estrecho por hallarse dentro del cuerpo de la torre. En él está situado un interesante coro, obra del siglo XVI, con decoración renacentista.

El acceso a la iglesia se realiza a través de un pórtico de cuatro arcos que se halla en el muro sur, donde encontramos una portada románica del siglo XIII. Tiene el arco ligeramente apuntado, con las arquivoltas poco decoradas. La primera y la tercera son baquetonadas, con un nervio muy marcado; la segunda muestra tallos entrelazados con puntas en los estrechamientos y óvalos escamosos en el interior. Remata toda la portada una arquivolta que presenta, en el trasdós, pequeñas hojas ovaladas, con el nervio central muy marcado, dispuestas de forma radial. Es un motivo ornamental que vemos repetido en la línea de imposta.

Bajo la línea de imposta, soportando las arquivoltas, seis columnas lisas con base de garras y con capiteles vegetales, los dos primeros iguales, con hojas de foliolos a los lados de un nervio central, y vueltas palmeadas muy



Portada

Portada

hostoek osatzen dituzte. Zimazioaren azpian eta lehenengo kapiteleko hostoen artean, eskuinean, lore bat ikusten da, eta ezkerrean, berriz, fruitu bat. Bigarren zutabearen kapitelek –zimazioaren azpian eta hostoen artean ere– zirkulu bana dute eta, zentroan, konkor bana, simetria gordez. Hirugarren zutabearen kapitelean, ananak gogorazten dizkiguten fruitu obalatu batzuek errematatzen dute erdiko nerbioa, ertzetakoak handiagoak izaki, eta zimazioaren azpian, bolutaz osaturiko apaingarri bat dago.

Kanpoaldean, elizaren hegoaldeko horman, lehenengo eraikinaren hondar erromaniko batzuk geratzen dira, hala nola besantedun arkibolta-zati bat, XVI. mendearen irekitako idi-begi molduradunaren eskuinaldean, eta Erdi Aroan zizelkatutako silarri batzuk ere.

Testua eta argazkiak: RHA

abiertas en las puntas. Bajo el cimacio y entre las hojas del primer capitel, en el lado derecho, podemos ver una flor, mientras que su opuesto, del lado izquierdo, hay un fruto. Los capiteles de la segunda columna llevan –bajo el cimacio y también entre las hojas– un círculo con un pico en el centro; en este caso, de forma simétrica. El capitel que corresponde a la tercera columna tiene como remate del nervio central unos frutos ovalados que recuerdan a las piñas, siendo de mayor tamaño los de las esquinas, y bajo el cimacio, un adorno de volutas.

En el exterior, en el muro sur de la iglesia, quedan algunos restos románicos de la primitiva construcción, como un fragmento de arquivolta de besantes, a la derecha del oculo moldurado, abierto en el siglo XVI, y varios sillares de labra medieval.

Texto y fotos: RHA

Bibliografía / Bibliografía

AZCÁRATE RISTORI, J. M., 1982, p. 45; CASTRO, C. de, 1915, p. 138, fig. 52; GÓMEZ GÓMEZ, A., 1998, p. 85; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 239-240; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; LÓPEZ DEL VALLADO, F., 1921b, pp. 862-864; PLAZAOLA ARTOLA, J., 2002b, p. 158; PORTILLA VITORIA, M. J., 1968, p. 70; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, p. 300, fig. 420-421.